1819/2026 EBAZPENA, azaroaren 18koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Langileen eta Talentuaren zuzendariarena, zeinaren bidez deialdia egiten baita Arlo Korporatiboko teknikari arduradun – administrazioko eta kudeaketako goi-mailako teknikari lanpostu bat hornitzeko, aldi baterako barne-sustapenaren edo zerbitzu-eginkizunen bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusian, Estrategia Ekonomikoko eta Eraldaketako Zuzendaritzan, Informazioaren Teknologien Zuzendariordetzan, Langileen Administrazio eta Erregistro Zerbitzuan.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Administrazio Kontseiluaren 2011ko maiatzaren 9ko Erabakiaren bidez, onetsi egin ziren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren zerbitzu-erakundeetan lanpostuak zerbitzu-eginkizunen eta aldi baterako barne-sustapenaren bidez betetzeko irizpideak, baita behin betiko barne-mugikortasunaren bidez betetzeko irizpide orokorrak ere.

Araudi horretan eta aplikatu beharreko gainerakoetan oinarrituta, eta langileen arloan indarrean dagoen legeriak egozten dizkidan eskumenez baliatuz, deialdi hau egiten dut:

LANPOSTUA: Arlo Korporatiboko teknikari arduraduna – administrazioko eta kudeaketako goi-mailako teknikaria.

DESTINOA: Zuzendaritza Nagusia, Langileen eta Talentuaren Zuzendaritza, Langileen Plangintzako eta Kudeaketako Zuzendariordetza, Langileen Administrazio eta Erregistro Zerbitzua (Vitoria-Gasteiz).

LANALDIA: Zatitua.

HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA: 3. HE, derrigortasun-data: 2025/12/16.

Aldi baterako barne-sustapenaren eta zerbitzu-eginkizunen eskatzaileentzat:

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2/2025 Instrukzioak ezartzen du prozedura lanpostu hutsak, erreserbatuak eta ordezkapenekoak betetzeko, baldin eta lanpostuek derrigortasun-data iraungiko hizkuntza-eskakizuna badute eta lanpostu horiek aldi baterako barne-mugikortasunaren, zerbitzu-eginkizunen edo aldi baterako barne-sustapenaren bidez eskaintzen badira. Instrukzio horren arabera, eskatzen den hizkuntza-eskakizuna duen pertsona batek ez badu betetzen lanpostua, kontratazio-zerrendetako kideei zein eskatutako hizkuntza-eskakizuna ez duten eta deialdian parte hartzen duten pertsonei eskainiko zaie lanpostua, hurrenez hurren eta txandaka. Hasieran, lanpostuari dagokion hizkuntza-eskakizuna eskatuko da eskaintzan; ondoren, eta hurrenez hurren, eskatutako eskakizunaren aurreko hizkuntza-eskakizuna izatea eskatuko da, edo hizkuntza-eskakizunik ez izatea, hala badagokio.

Horregatik, lanpostuak eskatzen duen derrigortasun-data iraungiko hizkuntza-eskakizuna izan ez arren, deialdi honetan parte har daiteke, aurreko paragrafoan azaldutako prozesuaren bidez izendatua izateko aukera dago-eta.

LANPOSTUAREN EGINKIZUNAK:

– Nomina-prozesuen, ordainsarien eta langileen administrazioaren kudeaketa teknikoa.

– Afiliazio- eta kotizazio-prozedurak eta Gizarte Segurantzarekin lotutako gainerako egoerak kudeatzea eta horien jarraipena egitea.

– Langileen, ordainsarien eta Gizarte Segurantzaren araudia aplikatzea eta interpretatzea.

– Giza baliabideei buruzko informazioa ustiatzea, aztertzea eta baliozkotzea, SAP-GBen eta beste tresna korporatibo batzuen bidez.

– Nominaren, langile-kostuen eta Gizarte Segurantzaren arloko txostenak, azterlanak eta dokumentazio teknikoa egitea.

– Langileak administratzeko eta ordainsariak kudeatzeko prozesuak hobetzen eta normalizatzen parte hartzea.

– Prozedurako administrazio-lanak egitea, espedienteak izapidetzea eta kotizazio-akatsak zuzentzea.

– Zerbitzu-erakundeei aholkularitza ematea Gizarte Segurantzaren arloan.

BETEKIZUNAK: (dokumentu bidez egiaztatu beharko dira, salbu eta CVaren aplikazioan badaude).

Aldi baterako barne-sustapenaren eskatzaileentzat:

– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeei atxikitako karrerako funtzionarioa, estatutupeko langile finkoa edo langile lan-kontratudun finkoa izatea.

– Zerbitzu aktiboan egotea eta lortu nahi den lanpostuaren titulu maila berekoa edo baxuagokoa den beste kategoria batekoa izatea.

– Ez edukitzea karrerako funtzionarioko, estatutupeko langile finkoko edo langile lan-kontratudun finkoko izendapenik administrazioko eta kudeaketako goi-mailako teknikari kategorian, interesdunak izendapen edo kontratu horrekiko duen egoera administratiboa edozein dela ere.

– Zuzendaritza Nagusiari langile finko gisa atxikita egotea, Zuzendaritza Nagusiko langileen barne-sustapenaren kasuan.

– Zuzendaritza Nagusia ez den beste zerbitzu-erakunde bati langile finko gisa atxikita egotea, zerbitzu-erakundeen arteko barne-sustapenaren kasuan.

– Aldi baterako barne-sustapenaren bidez kategoria bereko lanpostu batean egonez gero, egoera horretan urtebete baino gehiago egotea, etenik gabe.

– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoko lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan ezarritako titulua izatea eta deitutako azken EPEan kategoria honen oinarrietan eskatutako gainerako titulu-eskakizunak betetzea.

Aipatutako eskakizunak aurkezteko epearen azken egunean bete behar dira.

Zerbitzu-eginkizunen eskatzaileentzat:

– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeei atxikitako karrerako funtzionarioa, estatutupeko langile finkoa edo langile lan-kontratudun finkoa izatea edo Osasun Sistema Nazionaleko gainerako osasun-zerbitzuetako karrerako funtzionarioa edo estatutupeko langile finkoa izatea administrazioko eta kudeaketako goi-mailako teknikari kategorian.

– Zerbitzu aktiboan egotea, eta lanpostuak betetzeko eskabidea egitea norberak plaza jabetzan duen edo zerbitzu aktibora behin-behinean itzultzeagatik atxikita dagoen ez besteko zerbitzu-erakunde batean.

Aipatutako eskakizunak aurkezteko epearen azken egunean bete behar dira.

MEREZIMENDUEN BAREMOA: (agiri bidez egiaztatu beharko dira, salbu eta CV aplikazioan badaude).

Aldi baterako barne-sustapenaren eskatzaileentzat:

– EPEko oposizioaldia (gehienez: 100 puntu).
– Lehiaketa-fasea (gehienez: 80 puntu).

Eskabideak aurkezteko epea zabaltzen den arte izangaiei aitortu zaien zerbitzaldia hartuko da kontuan.

Zerbitzu-eginkizunen eskatzaileentzat:

– Lan-esperientzia, kategoria honen azken lekualdatze-lehiaketaren oinarrien arabera (gehienez: 47,5 puntu).

Eskabideak aurkezteko epea zabaltzen den arte izangaiei aitortu zaien zerbitzaldia hartuko da kontuan.

KONTUAN HARTZEKO MEREZIMENDUAK:

– Esperientzia nominaren eta langileen ordainsarien kudeaketan.

– Esperientzia afiliazioan, kotizazioan eta Gizarte Segurantzarekiko izapideen kudeaketan.

– Esperientzia lan- eta ordainsari-araudia eta Gizarte Segurantzari buruzkoa aplikatzen.

– Esperientzia SAP-GBetan edo langileak kudeatzeko beste aplikazio batzuetan.

– Esperientzia giza baliabideei buruzko txostenak egiten eta datuak ustiatzen.

– Prestakuntza edo esperientzia datuak aztertzeko eta langileen administrazio-kudeaketarako tresnetan.

EUSKARAREN EZAGUTZA:

Euskararen ezagutzaren balorazioari dagokion puntuazioa martxoaren 18ko Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan euskararen erabilera normalizatzeko 67/2003 Dekretuaren 24. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz egingo da.

ESKABIDEAK AURKEZTEKO MODUA:

Interesdunek Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiaren Langileen eta Talentuaren Zuzendaritzara bidali beharko dute eskabidea (Araba kalea 45, 01006 Vitoria-Gasteiz), beren datu pertsonal guztiekin eta *curriculum vitae* dokumentatuarekin batera, baldin eta ez badute aplikazio informatikoan baliozkotuta. Halaber, eskatutako ezagutza espezifikoak egiaztatzeko egokitzat jotzen duten dokumentazioa ere bidali beharko dute.

Eskabideak aurkezteko epea 10 egun baliodunekoa izango da, deialdia Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

LEHENTASUN-HURRENKERA:

Lanpostua betetzeko lehentasun-hurrenkera honako hau izango da:

1.– Aldi baterako barne-sustapena Zuzendaritza Nagusian. Sistema horren bidez ezin izango balitz lanpostua bete, hurrengo atalean adierazten dena erabiliko litzateke.

2.– Zerbitzu-eginkizunak. Sistema horren bidez ezin izango balitz lanpostua bete, hurrengo atalean adierazten dena erabiliko litzateke.

3.– Zerbitzu-erakundeen arteko aldi baterako barne-sustapena.

BALORAZIO BATZORDEA:

Balorazio Batzordea osatuko da, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 21. artikuluak ezarritakoaren arabera; hortaz, horren burua Giza Baliabideen Hautaketako eta Horniketako zuzendariordea edo haren ordezkoa izango da eta kide hauek izango ditu: Langileen Plangintza eta Kudeaketako zuzendariordea eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiko goi-mailako teknikari bat (azken horrek idazkari gisa jardungo du eta hitza eta botoa izango ditu).

HAUTAKETA PROZEDURA:

Interesdunek epearen barruan eta behar bezala aurkeztutako dokumentazioa baloratuko du Balorazio Batzordeak. Aurrekoa kontuan hartuko da eta dagokion izendapena formalizatzeko proposamena aurkeztuko da. Izangaiek eskatutako eskakizunak betetzen ez badituzte, Balorazio Batzordeak deialdia hutsik utzi ahal izango du.

EBAZPEN HONEN AURKAKO ERREKURTSOAK:

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da. Epe hori ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuko da, eta muga-hilaren egun berean amaituko da, egun baliokiderik ez dagoenean izan ezik. Kasu horretan, hilaren azken egunean amaituko da epea, edo epearen azken eguna baliogabea denean, zeina hurrengo egun baliodunera luzatuko baita.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko azaroaren 18a.

Osakidetza
Josune Retegi Ormazabal
LANGILEEN ETA TALENTUAREN ZUZENDARIA
DIRECTORA DE PERSONAS Y TALENTO

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Langileen eta Talentuaren zuzendaria,
JOSUNE RETEGI ORMAZABAL.